Hondarribiko Udala

VDALTZAINGOA
GVARDIA MVNICIPAL

BIDE PUBLIKOAN DAUDEN ANIMALIAK JASOTZEKO, ZAINTZEKO ETA ARTATZEKO ZERBITZUAREN, ETA KATU-KOLONIEN UDAL KUDEAKETA CER METODOAREN BIDEZ EGITEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA (I. LOTEA ETA II. LOTEA)

CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE RECOGIDA, CUSTODIA Y ATENCIÓN DE ANIMALES EN LA VÍA PÚBLICA Y DEL SERVICIO MUNICIPAL DE GESTIÓN DE COLONIAS FELINAS MEDIANTE MÉTODO CER (LOTE I Y LOTE II)

– *BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	**UDALTZAINGOA** / POLICÍA LOCAL **(LOTE 1)** **INGURUMENA** / MEDIO AMBIENTE **(LOTE 2)**
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	*2026K1150008*

1. AURREKARIAK

Animalien eskubideak eta ongizatea babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legearen 22. artikuluan eta Etxeko animaliak babesteko ekainaren 30eko 9/2022 Legearen 14.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalei dagokie beren udalerrian abandonatutako edo galdutako etxeko animaliak biltzea eta kontrolatzea, bai eta, identifikatuta egon arren, edukitzaileen kontrolik gabe ibiltzen direnak biltzea eta kontrolatzea ere, eta horiek atxikitzea titularrek berreskuratu arte, edo, hala badagokio, lagatu arte, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Era berean, eskumen horien esparruan, tokiko erakundeek hiriko katu-kolonien kudeaketa egokia bermatu behar dute, animalien ongizatera eta herritarren bizikidetzara bideratutatako populazioa kontrolatzeko metodo etikoen bidez.

Ildo horretan, katu komunitarioen kudeaketa CER metodoan oinarritutako programen bidez garatu da (harrapaketa, esterilizazioa eta itzulera). Hala ere, eremu hori gero eta konplexuagoa denez, eta jarduketa homogeneoa, jarraitua eta irizpide

1. ANTECEDENTES

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 22 de la Ley 7/2023, de 28 de marzo, de protección de los derechos y el bienestar de los animales y el artículo 14.1 de la Ley 9/2022, de 30 de junio, de protección de los animales domésticos, corresponde a los ayuntamientos la recogida y control de los animales domésticos abandonados o extraviados en su término municipal, así como de aquellos que, aun estando identificados, deambulen sin control de sus poseedores/as, procediendo a su retención hasta su recuperación por las personas titulares o, en su caso, a su cesión conforme a la normativa vigente.

Asimismo, en el marco de dichas competencias, las entidades locales deben garantizar la adecuada gestión de las colonias felinas urbanas mediante métodos éticos de control poblacional, orientados al bienestar animal y a la convivencia ciudadana.

En este sentido, la gestión de los gatos comunitarios se ha venido desarrollando, a través de programas basados en el método CER (captura, esterilización y retorno). No obstante, la creciente complejidad de este ámbito, así como la necesidad de garantizar una

ESKU082329f3-cdf3-4e63-a4ea-771dfff75dc

teknikoetara egokitua bermatzeko beharra dagoenez, beharrezkoa da eredu egituratuago eta egonkorrago baterantz aurrera egitea.

Bestalde, arlo horretako araudiaren bilakaerak indartu egiten du administrazio publikoek animalien ongizatea, populazioaren kontrol etikoa eta hiri-inguruneko bizikidetza lehenetsiko dituzten kudeaketa-ereduak hartzeko beharra, CER metodoa bezalako tresnak modu eraginkorrean txertatuz.

Testuinguru horretan, beharrezkotzat jotzen da dauden premiei erantzuteko behar diren zerbitzuak kontratatzea, bereiziz, alde batetik, etxeko animaliak biltzeko, artatzeko, kontrolatzeko, ostatatzeko eta tratatzeko jarduerak eta, bestetik, katu-kolonien kudeaketa, indarrean dagoen araudiarekin koherentea eta lerrokatua den prestazio eraginkorra bermatzeko, bi prestazioen arteko beharrezko koordinazioari kalterik egin gabe.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Hondarribiko udalerrian abandonatutako edo galdutako etxeko animaliak biltzeko, lekualdatzeko, zaintzeko eta artatzeko zerbitzuak ematea, bai eta katu-koloniak kudeatzea ere animalien ongizatera eta herritarren bizikidetzara bideratutako populazio-kontroleko metodo etikoen bidez.

Horretarako, kontratua hainbat lotetan egituratzen da, kontratua osatzen duten prestazioen izaera desberdina kontuan hartuta, zerbitzuak modu egokian, espezializatuan eta koherentean gauzatzen direla bermatzeko.

- I. lotea: etxeko animaliak bide publikoan jaso, zaindu eta artatzeko zerbitzua.
- II. lotea: CER metodoaren bidez katu-kolonien kudeaketa etikoa eta kontrola egiteko udal-zerbitzua.

Loteei dagozkien prestazioak modu koordinatuan garatu beharko dira, animalien arreta egokia, katu-

actuación homogénea, continuada y ajustada a criterios técnicos, hacen necesario avanzar hacia un modelo más estructurado y estable.

Por otro lado, la evolución normativa en esta materia refuerza la necesidad de que las administraciones públicas adopten modelos de gestión que prioricen el bienestar animal, el control poblacional ético y la convivencia en el entorno urbano, incorporando de manera efectiva instrumentos como el método CER.

En este contexto, se considera necesario proceder a la contratación de los servicios necesarios para dar respuesta a las distintas necesidades existentes, diferenciando, por un lado, las actuaciones de recogida, atención, control, alojamiento y tratamiento de animales domésticos y, por otro, la gestión de colonias felinas, a fin de garantizar una prestación eficaz, coherente y alineada con la normativa vigente, sin perjuicio de la necesaria coordinación entre ambas prestaciones.

2. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente contrato es la prestación de los servicios de recogida, traslado, custodia y atención de animales domésticos abandonados o extraviados en el término municipal de Hondarribia, así como la gestión de colonias felinas mediante métodos éticos de control poblacional orientados al bienestar animal y a la convivencia ciudadana.

A tal efecto, el contrato se estructura en diferentes lotes, en atención a la naturaleza diferenciada de las prestaciones que lo integran, con el fin de garantizar una ejecución adecuada, especializada y coherente de los distintos servicios.

- Lote I: Servicio de recogida, custodia y atención de animales domésticos en la vía pública.
- Lote II: Servicio municipal de gestión ética y control de colonias felinas mediante el método CER.

Las prestaciones correspondientes a los distintos lotes deberán desarrollarse de forma coordinada

ESKU082329f3-cdf3-4e63-a4ea-771dfff75dc

kolonien kudeaketa egokia eta zerbitzuaren funtzionamendu orokorra bermatzeko beharrezkoa denean.

Horretarako, enpresa esleipendunek elkarren artean eta Udalarekin lankidetzan aritu beharko dute lote desberdinetan jasotako prestazioei eragiten dieten edo eragin diezaieketen jardueretan.

3. DEFINIZIOAK

Agiri honen ondorioetarako, animalien babesaren eta ongizatearen arloan indarrean dagoen araudian jasotako definizioak aplikatuko dira.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, eta kontratu honetan behar bezala interpretatzeko, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

- Etxeko animaliak: belaunaldiz belaunaldi gizakira eta gatibutza-girora egokitzeko prozesua izan duten espezieetako animaliak, haien kideak jada basa-egoeran ez daudenak eta bizirauteko gizakiaren mende daudenak. Lege honen ondorioetarako, etxeko animaliak zein ekoizpeneko edo errentako animaliak sartzen dira.

- Ekoizpeneko edo errentako animaliak: ekoizpeneko, ugalketako, gizentzeko edo hiltzeko animaliak, larrugintzako edo ehiza-jardueretako animaliak barne, elikagaiak edo animalia-jatorriko produktuak ekoizteko mantendu, gizendu edo hazitakoak, edozein industria-erabilerarako edo merkataritza- edo irabazi-helburutarako.
- Lagun egiteko animaliak: gizakiak aisialdirako eta konpainiarako funtsezko helburuak dituen edo izan ditzakeen animalia oro, bere ekoizpenak kontsumitzeko edo aprobetxatzeko helbururik ez duena. Txakur eta katu guztiak ulertzen dituzte, baita hudoak ere, ematen zaien erabilera eta bizi diren lekua gorabehera.
- Galdutako animalia: identifikatuta edo identifikatu gabe egonik, norakorik edo

cuando resulte necesario para garantizar la adecuada atención de los animales, la correcta gestión de las colonias felinas y el buen funcionamiento general del servicio.

A tal efecto, las empresas adjudicatarias deberán colaborar entre sí y con el Ayuntamiento en las actuaciones que afecten o puedan afectar a prestaciones comprendidas en distintos lotes.

3. DEFINICIONES

A los efectos del presente pliego, serán de aplicación las definiciones contenidas en la normativa vigente en materia de protección y bienestar animal.

Sin perjuicio de lo anterior, y a efectos de su correcta interpretación en el presente contrato, se entenderá por:

- Animales domésticos: aquellos pertenecientes a especies que han tenido un proceso de adaptación al ser humano, y al ambiente de cautiverio a lo largo de generaciones, cuyos congéneres ya no se encuentran en estado silvestre, y que dependen del ser humano para su subsistencia. A los efectos de esta ley comprenden tanto los animales de compañía como los animales de producción o renta.
- Animales de producción o renta: los animales de producción, reproducción, cebo o sacrificio, incluidos los animales de peletería o de actividades cinegéticas, mantenidos, cebados o criados para la producción de alimentos o productos de origen animal para cualquier uso industrial u otro fin comercial o lucrativo.
- Animales de compañía: todo animal que el ser humano tenga o pueda tener con fines primordiales de ocio y compañía y que no tenga por objeto su consumo o aprovechamiento de sus producciones. Comprenden todos los perros y gatos, así como los hurones, independientemente del uso que se les de y el lugar donde vivan.

ESKU082329f3-cdf3-4e63-a4ea-771dfff75dc

kontrolik gabe doana, betiere titularrak edo arduradunak legean ezarritako epearen barruan animalia galdu dela jakinarazi badu. Identifikatutako animalien kasuan, galera Euskal Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistroari jakinarazii izan beharko zaio.

- Abandonatutako animalia: bere jatorria, titularra edo arduraduna identifikatuta egon edo ez, bide publikoan dagoen animalia oro, inoren laguntzarik gabe, galdu edo lapurtu dutela salatu gabe, edo esparru edo establezimendu batean abandonatua izan dena, edo titularrak edo hark baimendutako beste pertsona batek bilketa-zentrotik atera ez duena, legean ezarritako epeetan.

- Animal perdido o extraviado: aquel que, estando identificado o sin identificar, vague sin destino ni control, siempre que la persona titular o responsable haya comunicado el extravío o la pérdida del mismo dentro del plazo establecido en la ley. En el caso de animales identificados, deberá haberse comunicado la pérdida al Registro de Identificación de Animales de la Comunidad Autónoma Vasca.
- Animal abandonado: todo animal que, estando o no identificado su origen, titular o responsable, se encuentre en la vía pública no acompañado sin que se haya denunciado su pérdida o robo, o haya sido abandonado en un recinto o establecimiento o no haya sido sacado del centro de recogida por su titular u otra persona autorizada por éste, en los plazos establecidos en la ley.

4. KONTRATUAREN APLIKAZIO-EREMUA

Kontratu honen xede den zerbitzua Hondarribiko udalerri osoan emango da, eta kanpoan geratuko dira beste administrazio publiko batzuen eskumeneko bide edo espazioak, non eta ez dagoen agintaritza eskudunaren berariazko mandaturik, hitzarmenik edo errekerimendurik.

4. AMBITO DE APLICACIÓN DEL CONTRATO

El servicio objeto del presente contrato se prestará en la totalidad del término municipal de Hondarribia, quedando excluidas aquellas vías o espacios cuya competencia corresponda a otras administraciones públicas, salvo que exista encomienda, convenio o requerimiento expreso de la autoridad competente.

5. 1. LOTEA.- ABANDONATUTAKO EDO GALDUTAKO ANIMALIAK BILDU, ZAINDU ETA ARTATZEKO ZERBITZUA

5.1 LOTEAREN XEDEA ETA ZERBITZUAREN IRISMENA

Lote honen xedea da Hondarribiko udalerrian abandonatutako edo galdutako animaliak bildu, lekualdatu, zaindu eta artatzeko zerbitzu integrala ematea.

Bereziki, honako hauek hartuko ditu barne zerbitzuak:

- Bide publikoan abandonatutako, galdutako eta/edo zauritutako etxeko animaliak jaso eta artatzeko zerbitzua ematea, animalia horiek aurkitzea, harrapatzea eta dagozkien instalazioetara eramatea barne, baita horiei

5. LOTE Nº1.- SERVICIO DE RECOGIDA, CUSTODIA Y ATENCIÓN DE ANIMALES ABANDONADOS O EXTRAVIADOS

5.1 OBJETO DEL LOTE Y ALCANCE DEL SERVICIO

El objeto del presente lote es la prestación del servicio integral de recogida, traslado, custodia y atención de animales abandonados o extraviados en el término municipal de Hondarribia.

En particular, el servicio comprenderá:

- La prestación del servicio de recogida y atención de animales domésticos abandonados, extraviados y/o heridos en la vía pública, incluyendo su localización, captura y traslado a las instalaciones

ESKU082329f3-cdf3-4e63-a4ea-771dfff75dc

lotutako kontrol- eta zaintza-jarduerak egitea ere.

- Jasotako animaliei egonaldian arreta osoa ematea, ostatua, mantenua, oinarrizko zainketak eta albaitaritza-arreta barne, animalien babesaren eta ongizatearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera.

- Legez ezarritako epea igaro eta titularrek erreklamatu ez dituzten baina adopziora bideratzeko moduan dauden animalien egonaldia kudeatzea, entregatu arte etengabe zaindu, tratatu eta jarraipena egitea barne.

- Zerbitzua eguneko 24 orduetan modu iraunkorrean ematea, urteko egun guztietan, plegu honetan ezarritako baldintzen eta erantzuteko denboren arabera.

correspondientes, así como las actuaciones de control y vigilancia asociadas.

- La atención integral de los animales recogidos durante su estancia, incluyendo su alojamiento, manutención, cuidados básicos y atención veterinaria, conforme a la normativa vigente en materia de protección y bienestar animal.
- La gestión de la estancia de aquellos animales que, transcurrido el plazo legalmente establecido sin haber sido reclamados por sus titulares, se encuentren en condiciones de ser destinados a adopción, incluyendo su cuidado continuado, tratamiento y seguimiento hasta su entrega.
- La prestación del servicio con disponibilidad permanente durante las 24 horas del día, todos los días del año, conforme a las condiciones y tiempos de respuesta establecidos en el presente pliego.

Era berean, lote honen esparruan arreta jaso ahal izango dute II. lotetik datozen katu komunitarioek, baldin eta, adina, sozializazio-maila, osasun-egoera edo behar bezala justifikatutako beste inguruabar batzuk direla-eta, aldi baterako harreran edo adopzioan hartzeko modukoak badira.

Asimismo, podrán ser objeto de atención en el marco del presente lote aquellos gatos comunitarios procedentes del Lote II que, por su edad, grado de socialización, estado sanitario u otras circunstancias debidamente justificadas, sean considerados susceptibles de acogida temporal o adopción.

Kasu horietan, I. lotearen esleipendunak bere gain hartuko du horiek zaintzea, artatzea, osatzea, sozializatzea, hala badagokio, eta balizko harrera edo adopziorako kudeaketa, II. lotearen esleipendunarekin eta Udalarekin koordinatuta.

En tales supuestos, la adjudicataria del Lote I asumirá su custodia, atención, recuperación, socialización, en su caso, y gestión para su eventual acogida o adopción, en coordinación con la adjudicataria del Lote II y con el Ayuntamiento.

5.2 ZERBITZUARI ATXIKITAKO GUTXIENEKO BITARTEKOAK

5.2 MEDIOS MÍNIMOS ADSCRITOS AL SERVICIO

Kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak agiri honetan aurreikusitako jarduerak behar bezala egiten direla bermatzeko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak atxiki beharko dizkio zerbitzuari.

La empresa adjudicataria deberá adscribir al servicio, durante toda la vigencia del contrato, los medios materiales y personales necesarios para garantizar la correcta prestación de las actuaciones previstas en el presente pliego.

5.2.1 Baliabide materialak

5.2.1 Medios materiales

Enpresa esleipendunak, gutxienez, honako hauek izan beharko ditu:

La empresa adjudicataria deberá disponer, como mínimo, de:

ESKU082329f3-cdf3-4e63-a4ea-771dfff75dc

- Bildutako animaliak zaintzeko, kokatzeko, isolatzeko eta artatzeko instalazio egokiak, animalien babesaren eta ongizatearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera.

- Zerbitzuari atxikitako ibilgailu bat, animaliak garraiatzeko egokitua eta agiri honetan aurreikusitako bilketa-, lekualdatze- eta arreta-jarduerak egiteko egokia.

- Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren harrapatzeko, maneiatzeko eta garraiatzeko bitartekoak, besteak beste, mikrotxipen irakurgailua, kaiolak, garraiagailuak, begizta homologatuak, muturrekoak, sareak eta animaliak modu seguruan jaso eta maneiatzeko aukera ematen duten gainerako elementuak.
- Zerbitzua ematen parte hartzen duten langileentzako babes- eta segurtasun-material egokia.
- Zerbitzua etengabe ematen dela eta plegu honetan ezarritako gehieneko erantzun-denborak betetzen direla bermatzea ahalbidetzen duten komunikabide iraunkorrak.
- Animalien osasun-arreta egokia bermatzeko eta, hala badagokio, agiri honetan aurreikusitako ebakuntza kirurgikoak, berrogeialdiak, isolamenduak eta albaitaritza-tratamenduak egiteko albaitaritzako instalazio eta ekipamenduetarako sarbidea.

- Instalaciones adecuadas para la custodia, alojamiento, aislamiento y atención de los animales recogidos, conforme a la normativa vigente en materia de protección y bienestar animal.
- Un vehículo adscrito al servicio, acondicionado para el transporte de animales y adecuado para la prestación de las actuaciones de recogida, traslado y atención previstas en el presente pliego.
- Los medios de captura, manejo y transporte necesarios para la adecuada prestación del servicio, incluyendo, entre otros, lector de microchips, jaulas, transportines, lazos homologados, bozales, redes y demás elementos que permitan la recogida y manejo seguro de los animales.

- Material de protección y seguridad adecuado para el personal que intervenga en la prestación del servicio.
- Medios de comunicación permanentes que permitan garantizar la prestación continuada del servicio y el cumplimiento de los tiempos máximos de respuesta establecidos en el presente pliego.
- Acceso a instalaciones y equipamientos veterinarios suficientes para garantizar la correcta atención sanitaria de los animales y, en su caso, la realización de intervenciones quirúrgicas, cuarentenas, aislamientos y tratamientos veterinarios previstos en el presente pliego.

Animaliak zaindu eta artatzeko instalazioak Hondarribiko Udaltzaingoaren bulegoetatik (Errebellin kalea, 1) gehienez 40 kilometrora jarri beharko dira, agiri honetan aurreikusitako gehieneko erantzun-denborak behar bezala bermatzeko.

Las instalaciones destinadas a la custodia y atención de los animales deberán ubicarse a una distancia máxima de 40 kilómetros desde las dependencias de la Policía Municipal de Hondarribia (Errebellin kalea 1), a fin de garantizar adecuadamente los tiempos máximos de respuesta previstos en el presente pliego.

5.2.2 Giza baliabideak

5.2.2 Medios personales

ESKU082329f3-cdf3-4e63-a4ea-771dffff75dc

Enpresa esleipendunak behar adina giza baliabide izan beharko ditu zerbitzua alderdi guztietan behar bezala ematen dela bermatzeko.

La empresa adjudicataria deberá disponer de los medios humanos suficientes para garantizar la correcta prestación del servicio en todos sus aspectos.

Zerbitzuari atxikitako langileek agiri honetan aurreikusitako eginkizunak betetzeko prestakuntza eta gaikuntza egokiak izan beharko dituzte, eta zerbitzua ematen duten bitartean behar bezala identifikatuta jardun beharko dute.

El personal adscrito al servicio deberá contar con la formación y capacitación adecuadas para el desempeño de las funciones previstas en el presente pliego y actuar debidamente identificado durante la prestación del servicio.

Animaliak biltzen, harrapatzen, maneiatzen eta garraiatzen zuzenean esku hartzen duten langileek indarrean dagoen araudiak eskatutako gaikuntza, baimen edo lizentziak izan beharko dituzte, eta, bereziki, legez eska daitekeenean, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko dagokion administrazio-lizentzia.

El personal que intervenga directamente en la recogida, captura, manejo y transporte de animales deberá contar con las habilitaciones, autorizaciones o licencias exigidas por la normativa vigente y, en particular, cuando resulte legalmente exigible, con la correspondiente licencia administrativa para la tenencia de animales potencialmente peligrosos.

Enpresa esleipendunak agiri honetan aurreikusitako albaitaritza-jarduerak egiteko gaitutako albaitaritza-zerbitzua izan beharko du, bitarteko propioen bidez edo kontratua behar bezala gauzatzen dela bermatzeko beharrezkoak diren kanpoko akordio edo zerbitzuen bidez.

La empresa adjudicataria deberá disponer de servicio veterinario habilitado para la prestación de las actuaciones veterinarias previstas en el presente pliego, ya sea mediante medios propios o mediante los acuerdos o servicios externos que resulten necesarios para garantizar la correcta ejecución del contrato.

Halaber, enpresa esleipendunak Udalarekiko eta herritarrekiko harremanetan euskarazko eta gaztelaniazko ahozko eta idatzizko arreta bermatuko du.
Horretarako, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 maila edo titulazio baliokidea egiaztatu beharko dute zerbitzuari atxikitako izaera orokorreko eta jendaurreko langileek.-

Asimismo, la empresa adjudicataria garantizará la atención oral y escrita en euskera y castellano en las relaciones con el Ayuntamiento y con la ciudadanía.

A tal efecto, el personal de carácter general y de atención al público adscrito al servicio, deberá acreditar un nivel mínimo C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas o titulación equivalente.

5.3 ZERBITZUA EMATEA

5.3 PRESTACIÓN DEL SERVICIO

5.3.1 Animaliak bildu eta lekualdatzea

5.3.1 Recogida y traslado de animales

Enpresa esleipendunak bizirik edo hilda dauden etxeko animaliak jaso eta beren instalazioetara eramango ditu.

La empresa adjudicataria realizará la recogida y el traslado de animales domésticos vivos o muertos a sus instalaciones.

Bide publikoan solte, galduta, abandonatuta, hilda edo zaurituta dauden etxeko animaliak jaso eta

Se recogerán y trasladarán los animales domésticos sueltos, perdidos, abandonados, muertos o heridos

ESKU082329f3-cdf3-4e63-a4ea-771dfff75dc

lekualdatuko dira, bai eta istripuak edo erasoak eragin dituztenak, horiek kentzea dakarten espediente administratibo edo judizialen mende daudenak, edo behaketan edo berrogealdian egon behar dutenak ere, organismo edo agintaritza eskudunak eskatuta.

en la vía pública, así como, los que hayan causado accidentes o agresiones, estén sujetos a expedientes administrativos o judiciales que impliquen su retirada, o deban permanecer en observación o cuarentena, a solicitud del organismo o autoridad competente.

Enpresa esleipendunak Udaltzaingoak bakarrik eskatuta egingo ditu harrapaketak. Enpresa esleipendunak ez ditu inola ere zuzenean erantzungo partikularren abisuak.

La empresa adjudicataria efectuará las capturas exclusivamente a instancias de la Policía Local. En ningún caso la empresa adjudicataria atenderá directamente los avisos de particulares.

Esleipenduna animalia edo animaliak dauden lekura joango da, animalia jaso, lekuz aldatu eta ondoren zaintzeko.

La adjudicataria acudirá al lugar donde se encuentre el animal o los animales para su recogida, traslado y posterior custodia.

Harrapaketa eta garraioa prestakuntza egokia eta erregelamenduz ezartzen den gaitasun-ziurtagiria duten langileek egin beharko dute beti, beharrezkoa ez den sufrimendurik, minik edo larritasunik eragiten ez duten metodoen bidez. Animaliaren edo pertsonen segurtasunak berak hala eskatzen duenean, harrapatzeko metodoak zorabiatuz eta urrutitik immobilizatuz erabili ahal izango dira, lasaigarriak dituzten jaurtigaien, anestesikoen, tranpa-sareen edo animalia bizirik eta ahalik eta kalte txikienarekin harrapatzea ahalbidetzen duen beste edozein sistemaren bidez, betiere albaitariaren ikuskaritzapean.

La captura y transporte deberá realizarse siempre por personal con la formación adecuada y con el certificado de competencia que reglamentariamente se establezca, mediante métodos que no ocasionen sufrimiento, dolor o angustia innecesarios. En aquellos casos en los que la propia seguridad del animal o de las personas así lo requiera, se podrán emplearse métodos de captura con aturdimiento e inmovilización a distancia mediante proyectiles con tranquilizantes, y anestésicos, redes trampas o cualquier otro sistema que permita capturar al animal vivo y con el menor daño posible, siempre bajo supervisión veterinaria.

Instalazioetara iritsitakoan, animalia hartuko da, eta, bertan, animalia identifikatu, argazkia atera eta fitxa irekiko da, agiri honetan aurreikusitakoaren arabera, bai eta Udaltzaingoari jakinarazi ere, gehienez ere 24 orduko epean.

Una vez en las instalaciones, se procederá a la recepción del animal, que incluirá su identificación, fotografía y apertura de ficha, conforme a lo previsto en el presente pliego, así como su comunicación a la Policía local en el plazo máximo de 24 horas.

Sartzeko unean, albaitariek ebaluatuko dute animalia, eta osasun-egoera zehaztuko dute. Hasierako ebaluazio horretan, gutxienez, honako hauek sartuko dira:

- Osasun-azterketa orokorra
- Gaixotasun kutsakorren zantzuak berrikustea
- Zauriak, hausturak edo ageriko kalteak ebaluatzea
- Txertaketa eta parasitoa kentzea, hala dagokionean

En el momento de la entrada, el animal será evaluado por personal veterinario, que determinará su estado de salud. Esta evaluación inicial incluirá, como mínimo:

- Chequeo general de salud
- Revisión de signos de enfermedades contagiosas
- Evaluación de heridas, fracturas o daños visibles
- Vacunación y desparasitación cuando proceda

ESKU082329f3-cdf3-4e63-a4ea-771dfff75dc

- Esterilizazioa edo osasun-egoeraren araberako plangintza

Salbuespen gisa, eta Udaltzaingoak hala eskatuta, zaintza bereziak behar dituzten edo adopzioaren aurreko sozializazio-prograметan parte hartu behar duten katu komunitarioak hartu ahal izango dira instalazio komunitarioetan.

5.3.2 Prestasuna eta erantzuteko denborak

Bilketa-zerbitzua bermatuta egongo da eguneko 24 orduetan.

Enpresa esleipendunak animalia jasotzeko adierazitako lekura joan beharko du, jarraian adierazten diren gehieneko epeetan:

- 60 minutu eguneko ordutegian.
- 60 minutu gaueko ordutegian (22:00etatik 08:00etara).

Epeak enpresa esleipendunak ezarritako kanalen bidez abisua jasotzen duenetik zenbatuko dira.

Horretarako, enpresa esleipendunak arretarako telefono iraunkor bat izango du.

Behar bezala justifikatutako oharren edo salbuespenezko zirkunstantzien kasuan, esku hartzeko denbora luzatu ahal izango da, aldez aurretik udal zerbitzu arduradunari jakinarazita.
Artatutako abisu bakoitzeko, esleipendunak erregistro bat egingo du, gutxienez honako alderdi hauek jasoko dituena.

- Abisua jaso den eguna eta ordua.
- Eskatutako lekura iristsi den ordua.
- Egindako esku-hartzea.
- Inplikatutako animaliaren ezaugarriak.
- Animalia zein egoeratan dagoen.
- Abisuari emandako irtenbidea.

Esleipendunak abisuaren ordu-erregistroaren eta lekura iristearen ebidentziak gorde beharko ditu

- Esterilización o planificación de la misma según el estado de salud

Excepcionalmente, y a requerimiento de la Policía Local, podrán acogerse en las instalaciones gatos comunitarios que requieran cuidados especiales o deban participar en programas de socialización previos a su adopción.

5.3.2 Disponibilidad y tiempos de respuesta

El servicio de recogida quedará garantizado las 24 horas del día.

La empresa adjudicataria deberá acudir al lugar indicado para la recogida del animal en los plazos máximos que se señalan a continuación:

- 60 minutos en horario diurno.
- 60 minutos en horario nocturno (entre las 22:00 y las 08:00 horas).

Los plazos se computarán desde la recepción del aviso por la empresa adjudicataria a través de los canales establecidos.

A tal efecto, la empresa adjudicataria dispondrá de un teléfono permanente de atención.

En caso de concurrencia de avisos o circunstancias excepcionales debidamente justificadas, el tiempo de intervención podrá ampliarse, previa comunicación al servicio municipal responsable.
De cada aviso atendido, la adjudicataria elaborará un registro en el que se hagan constar, como mínimo los siguientes extremos.

- La fecha y hora de recepción del aviso.
- La hora de llegada al lugar requerido.
- La intervención realizada.
- Las características del animal implicado.
- El estado en el que se encuentra el animal implicado.
- La solución dada al aviso.

La adjudicataria deberá conservar evidencia del registro horario del aviso y de la llegada al lugar

ESKU082329f3-cdf3-4e63-a4ea-771dfff75dc

(deien barne-erregistroa eta esku-hartzearen erregistroa), agiri honetan ezarritako gehieneko erantzun-denborak betetzen direla egiaztatzeko.

5.3.3 Ostatua, zaintza eta mantenua

Animalia zentroan sartzean, identifikatu, argazkia atera eta fitxa irekiko da, eta Udaltzaingoari jakinaraziko zaio.

Jakinarazpen hori gehienez 24 orduko epean egin beharko da, udal zerbitzu eskudunak titularrei jakinaraz diezaien, eta legez ezarritako epeak zenba daitezen, abandonatutzat jo aurretik berreskuratzeko.

Enpresa esleipendunak animalia sartzeko protokolo bat izango du, albaitariek gainbegiratua, animalia bakoitzaren inguruabar zehatzetara egokitua den eta egunerokoa den arreta bermatzen duena, oinarrizko premiei eta bizi-duintasunari dagokienez. Protokoloak honako programa hau hartuko du berne:

- Elikadura.
- Higienea eta profilaxia
- Aisialdia
- Parasito-kentzea eta txertaketa, hala dagokionean
- Osasun-azterketa
- Behar izanez gero, berrogeialdian isolatzea.

Tratu txarren edo animalien babeserako araudia ez betetzearen zantzuak antzemanez gero, animalia tokian bertan artatu eta babestuko da, eta agintari eskudunari jakinaraziko zaio.

5.3.4 Albaitaritza Zerbitzua

Lesio edo gaixotasun larrien kasuan, **gehienez ere 24 orduko epean** eman beharko da albaitaritza-laguntza.

(registro interno de llamadas y registro de intervención), a efectos de verificación del cumplimiento de los tiempos máximos de respuesta establecidos en el presente pliego.

5.3.3 Alojamiento, cuidado y manutención

A la entrada del animal en el centro, se procederá a su identificación, fotografía y apertura de ficha, que será comunicada a la Policía Local.

Dicha comunicación deberá efectuarse en el plazo máximo de 24 horas, a efectos de que por parte del servicio municipal competente se proceda a la notificación a las personas titulares, y al cómputo de los plazos legalmente establecidos para su recuperación previa a la declaración de abandono.

La empresa adjudicataria dispondrá de un protocolo de entrada del animal, supervisado por personal veterinario, que garantice la atención diaria y adaptada a las circunstancias concretas de cada animal, referente a la cobertura de sus necesidades básicas y dignidad vital que comprenderá un programa de:

- Alimentación.
- Higiene y profilaxis
- Recreo y esparcimiento
- Desparasitación y vacunación cuando proceda
- Revisión sanitaria
- Aislamiento en zona de cuarentena en caso necesario.

En el caso de detectarse indicios de maltrato o incumplimiento de la normativa de protección animal, se atenderá y protegerá al animal en el lugar y se pondrá en conocimiento de la autoridad competente.

5.3.4 Servicio Veterinario

En caso de lesiones o enfermedad grave, la asistencia veterinaria deberá prestarse en un **plazo máximo de 24 horas.**

ESKU082329f3-cdf3-4e63-a4ea-771dfff75dc

Azterketa arruntak, gutxienez, **astean behin** egingo dira, salbu eta titular ezaguna duten eta patologiarik ez duten animalien kasuan.

Las revisiones ordinarias, se realizarán, como mínimo, **una vez a la semana**, salvo en el caso de animales identificados con titular conocido que no presenten patologías.

Premiazko ebakuntza kirurgikoak gehienez ere 24 orduko epean egin beharko dira, animalia jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Las intervenciones quirúrgicas urgentes necesarias, deberán realizarse en el plazo máximo de 24 horas desde la recogida del animal.

Eskatzen diotenean, enpresa esleipendunak lesioak eragin dituzten edo organo judizial eskudunaren esku dauden animalien albaitaritza-ikuskapena egin beharko du, bai eta dagozkion akta edo txosten indibidualak egin ere, eta horiek Udaltzaingoari bidaliko zaizkio.

Cuando le sea requerido, la empresa adjudicataria deberá realizar la inspección veterinaria de animales que hayan causado lesiones o que se encuentren a disposición del órgano judicial competente, así como emitir las actas o informes individuales correspondientes, que serán remitidas a la Policía local.

Albaitaritza-zerbitzuak honako hauek ere hartuko ditu:

- Osasun-ziurtagiri ofizialak, indarrean dagoen legeriari buruzko ziurtagiriak eta/edo Txakurren Kartilla Ofizialean dagozkion oharrak egiteko.

- Gizakiarentzat zein beste animalia batzuentzat kutsagarriak diren gaixotasunen susmoen aurrean behar diren neurri guztiak hartzea, osasun-agintariek emandako jarraibide eta irizpideekin bat etorriz, kutsatzeak saihesteko; neurri horiek honako hauek dira: albaitarien azterketak, tratamenduen egiaztapena, berrogeialdia, konfiskazioa edo animaliaren eutanasia.
- Animaliak, txakurrak edo katuak barneratzea, isolatzea eta aztertzea proposatzea, baldin eta lesio egiaztatuak eragin badituzte, hozkaden edo bestelako lesioen ondorioz, bai eta amorrua izan dezaketen animaliak ere. Albaitariaren behaketa egin beharko da 14 egunez.

- Erasoak egin dituen animaliaren arriskugarritasun potentziala balioesten duten txostenak egitea, edo txakurraren ezaugarriak indarrean dagoen araudian aipatutakoekin bat datozen edo ez argitzeko arriskua edo zalantzak argitzea.

La prestación del servicio veterinario comprenderá, también:

- La expedición de certificaciones oficiales sanitarias, certificaciones referidas al ámbito de la legislación vigente y/o para realizar las oportunas anotaciones en la Cartilla Oficial Canina.
- La adopción de cuantas medidas, de acuerdo a las directrices y criterios emanados por las autoridades sanitarias, se requieran ante la sospecha de enfermedades transmisibles tanto para el ser humano como para otros animales, con el fin de evitar contagios; medidas tales como reconocimientos veterinarios, verificación de tratamientos, cuarentena, decomiso o eutanasia del animal.
- La propuesta de internamiento, aislamiento, así como la realización del reconocimiento de los animales, perros o gatos, que hayan producido lesiones comprobadas, por mordeduras u otras lesiones, así como a animales sospechosos de rabia, y que deberán ser sometidos a observación veterinaria, durante 14 días.
- La realización de informes que valoren la potencial peligrosidad del animal que haya protagonizado agresiones, o se sospeche de la potencial peligrosidad o aclaración de dudas sobre si las características del perro

ESKU082329f3-cdf3-4e63-a4ea-771dffff75dc

- Agintaritza eskudunak eskatzen duenean, kontratu honen eremuarekin lotutako udal, polizia, administrazio edo epaitegietako jarduketen xede diren animaliekin lotutako txostenak edo dokumentazio teknikoa ematea, eta, hala badagokio, animaliaren osasun-egoerari, mantentze-baldintzei, emandako arretari edo zaintzatik eta tratamendutik eratorritako kostuei buruzko alderdiak sartzea.
- Beharrezkoa denean, mikrotxipa edo identifikaziorako elementu mikroelektronikoa ezartzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Animaliekin zerikusia duten gorabeherei, salaketei edo abisuei erantzutea, kontratu honen xedean jasotako jarduerak behar direnean eta agintari eskudunak hala eskatzen duenean.
- Txertaketa eta tratamendu ofizialak egitea, bai eta etorkizunean ezar daitezkeen programa ofizialak egitea ere.

Eta, oro har, kontratuaren xedearekin zerikusia duten gaietan albaitari baten laguntza behar duten zeregin guztiak.

5.3.5 Hildako animalien kudeaketa eta eutanasia

Ezin izango da animaliarik hil, legez aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Eutanasia albaitaritza-preskripzio arrazoituaren bidez bakarrik aplikatu ahal izango da, aldez aurretik sedatuta, gaixotasun edo sufrimendu itzulezin kasuetan, indarrean dagoen araudiaren arabera. Ezin izango da eutanasiarik egin tratatu daitezkeen gaitz, pairamen, nahasmendu edo gaixotasunak dituzten animalien gainean, animaliak bizitza osasungarria izan dezakeen bitartean.

Hildako edo eutanasiatutako animaliak, bai eta bide publikoan hildako eta jasotako animaliak ere, indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatuko dira, eta hiru hilean behin behar bezala ezabatu

corresponden o no con las citadas en la normativa vigente.

- La emisión, cuando sea requerido por la autoridad competente, de informes o documentación técnica relacionada con animales objeto de actuaciones municipales, policiales, administrativas o judiciales vinculadas al ámbito del presente contrato, incluyendo, en su caso, aspectos relativos a su estado sanitario, condiciones de mantenimiento, atención prestada o costes derivados de su custodia y tratamiento.
- La implantación, en los casos que sean necesarios, de un microchip o elemento microelectrónicos de identificación, de acuerdo con la normativa vigente.
- La atención a incidencias, denuncias o avisos relacionados con animales, cuando requieran actuaciones comprendidas en el objeto del presente contrato y así sea requerido por la autoridad competente.
- La realización de vacunaciones y tratamientos oficiales, así como programas oficiales que se puedan establecer en el futuro.

Y en general todas aquellas tareas en las que sea necesaria el apoyo de un/a veterinario/a en las materias relacionadas con el objeto del contrato.

5.3.5 Gestión de animales fallecidos y eutanasia

No se permitirá el sacrificio de animales, salvo en los supuestos legalmente previstos.

La eutanasia únicamente podrá aplicarse bajo prescripción veterinaria motivada, bajo sedación previa, en casos de enfermedad o sufrimiento irreversible, conforme a la normativa vigente. No se podrá llevar a cabo la eutanasia sobre animales con dolencias, padecimientos, trastornos o enfermedades tratables, mientras el animal pueda llevar una vida saludable.

Los animales fallecidos o eutanasiados, así como los recogidos fallecidos en vía pública, serán gestionados conforme a la normativa vigente, debiendo acreditarse trimestralmente su correcta eliminación

ESKU082329f3-cdf3-4e63-a4ea-771dfff75dc

direla egiaztatu beharko da, animalia kudeatzen duen enpresak emandako ziurtagirien bidez.

Kontratistak legez baimendutako erraustegi propioa izan beharko du, edo enpresa pribaturen batekin akordioa egin beharko du animalien gorpuak errausteko edo kudeatzeko, indarrean dagoen araudiaren arabera.

5.3.6 Animaliak itzultzea eta animalien helmuga

Animaliak osasun-berme egokiekin itzuliko dira, epeei, mikrotxiparen bidezko identifikazioari, txertaketari, esterilizazioari (hala dagokionean) eta indarrean dagoen araudiak eskatutako gainerako baldintzei dagokienez legez ezarritako baldintzak bete ondoren.

Animalia instalazioetan egotea eta itzultzea Udal Ordenantzan xedatutakoari egokituko zaio, bai eta Etxeko Animaliak Babesteko ekainaren 30eko 9/2022 Legean eta Animalien Eskubideak eta Ongizatea Babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legean ezarritakoari ere.

Animaliak titularrei emango zaizkie, titulartasuna egiaztatu ondoren, edo haiek behar bezala baimendutako pertsonei, Udaltzaingoak ezarritakoaren arabera eta haien ezagutzarekin.

Animalia itzuli ahal izateko, animaliak biltzeak, mantentzeak eta albaitariak zaintzeak eragindako gastuak ordaindu beharko dira, aplikatzekoa den araudiaren arabera hala badagokio.

Legezko epeak igaro eta titularrak ez badu animalia berreskuratu, abandonatutako abere gisa hartuko da, eta udalaren esku utziko da, indarrean dagoen araudiaren arabera destinoa izan dezan, adopzioa edo harrera barne.

Entregatzeko ordutegia gutxienez astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da, eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara.

5.3.7 Bilketari lotutako araubide ekonomikoa

mediante los certificados correspondientes emitidos por la empresa que gestione el animal.

La contratista deberá poseer incineradora propia legalmente autorizada o acuerdo con alguna empresa privada para la incineración o gestión de los cadáveres animales según la normativa vigente.

5.3.6 Devolución y destino de los animales

La devolución de los animales se hará con las debidas garantías sanitarias, una vez cumplidos los requisitos legalmente establecidos en cuanto a plazos, identificación mediante microchip, vacunación, esterilización cuando proceda, y demás condiciones exigidas por la normativa vigente.

